



PRENTSARAKO OHARRA

AURREKONTUEK TRAMITAZINO PROZESUAGAZ JARRAITZEN DABE, ENPLEGU, EKONOMIAREN SUSTAPEN ETA IRAUNKORTASUN SAILETAKO AURREKONTUEN AURREAN BATZORDEETAN AURKEZTU DIRAN ZUZENKETA-ESKEAK ATZERA BOTA OSTEAN

- **2020ko aurrekontu proiektuaren ganeko saioen bigarren jardunaldian, EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia eta Talde Berezia / PP Bizkaia taldeek aurkeztutako 277 zuzenketa-eske bozkatu dira**

(Bilbon, 2019ko abenduaren 17an).- Bizkaiko Batzar Nagusiek, Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun, Ekonomiaren Sustapen eta Iraunkortasun eta Ingurune Natural Sailetako aurrekontuen aurrean aurkeztutako zuzenketa-eske partzialak bozkatzeko Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen saioen bigarren jardunaldia jaso dabe gaur. Guztira, oposizinoko taldeek aurkeztu dituen 277 zuzenketa-eske partzial bozkatu dira. Horreetako bat be ez da onartu Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek kontrako botoa emon dabelako.

Holan, Aldundiko hiru sail horreetako aurrekontuen proiektuak Batzordean onetsita geratu dira. Partidei emondako argi berde hori behin behinekoa da, talde guztiek, datorren abenduaren 27an egingo dan 2020ko Osokoan eztabaidetako eta bozkatzeko erreserbau dituelako zuzenketa-eske guztiak.

Lehenengo saioan, Teresa Laespada Diputatu buru dan Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren aurrekontuen aurrean aurkeztutako 84 zuzenketa-eske partzial bozkatu dira, horreetako bat baztertu egin da eta. Sail horrek 2020rako daukan aurrekontua 68,63 milioi eurokoa da, eta zutabe nagusietakoa emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna da. Helburu horretara 16 milioi euroko partidea zuzentzen da, inbertsino osoaren %1,25, hain zuzen be.

Horren ostean, Ekonomiaren Sustapen Sailaren kontuei jagokon Batzordea egin da. Ainara Basurko Foru Diputatuak zuzentzen dauen saila izan da zuzenketa-eske partzial gehien jaso dituna, Aldundiko bederatzi sailen aurrean aurkeztu diran 630 zuzenketa-eske partzialetatik 105 sail horren aurrekontuen aurrean aurkeztu dira eta. Aldaketarako proposamen bat be ez da onetsi.

Arratsaldean, Elena Unzuetak kudeatzen dauen Iraunkortasun eta Ingurune Natural Sailaren aurrekontuen ganeko azkenengo saioa egin da. 88 zuzenketa-eske partzial eztabaidatu eta bozkatu dira.

Gobernu taldea osatzen daberen taldeak hiru sailtako aurrekontu proiektuen alde agertu dira, eta euren gehiengoagaz atzera bota dituen EH Bilduk, Elkarrekin Bizkaiak eta Talde Berezia / PP Bizkaiak aurkeztu dituen zuzenketa-eske guztiak.

Bihar, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitza administratiboak Ogasun eta Finantzetako Batzordearen azkenengo hiru saioak jasoko ditu, Garraio eta Mugikortasun Jasangarri, Herri Administrazio eta Erakunde Harreman eta Ogasun eta Finantza Sailen aurrekontuen aurrean aurkeztu diren zuzenketa-eskeak bozkatzeko. Aurreikusten denez, 2020ko Bizkaiko Aurrekontu Orokorrak onetsiko dituan Osokoaren aurreko azkenengo izapidea izango da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LOS PRESUPUESTOS CONTINÚAN SU TRAMITACIÓN TRAS DESESTIMARSE EN COMISIÓN LAS ENMIENDAS A LOS DEPARTAMENTOS DE EMPLEO, PROMOCIÓN ECONÓMICA Y SOSTENIBILIDAD

- **En la segunda jornada de sesiones sobre el proyecto presupuestario para 2020, se han votado un total de 277 enmiendas de EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y Grupo Mixto / PP Bizkaia**

(Bilbao, a 17 de diciembre de 2019).- Las Juntas Generales de Bizkaia han acogido hoy la segunda jornada de sesiones de la Comisión de Economía y Hacienda para votar las enmiendas parciales a los presupuestos de los Departamentos de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, de Promoción Económica y de Sostenibilidad y Medio Natural. En total, se han votado un total de 277 enmiendas parciales presentadas por los grupos de la oposición. Todas ellas han quedado rechazadas al registrar los votos en contra de los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos.

Han quedado así aprobados en comisión el proyecto de presupuestos de estos tres departamentos forales. Esta luz verde a las partidas es provisional, pues todos los grupos se han reservado las enmiendas parciales para su votación definitiva en el Pleno que se celebrará el próximo día 27.

En la primera sesión, se han debatido, votado y rechazado 84 enmiendas parciales, tras retirarse una de las enmiendas presentadas a los presupuestos del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, que encabeza la Diputada Teresa Laespada. El presupuesto de este departamento para 2020 asciende a 68,63 millones de euros y tiene en la igualdad de mujeres y hombres uno de los pilares con una partida destinada a este fin de 16 millones de euros, el 1,25% de la inversión total.

A continuación, se ha celebrado la Comisión correspondiente a las cuentas del Departamento de Promoción Económica. El departamento dirigido por la Diputada Foral Ainara Basurko es el que más enmiendas parciales ha tenido, al contabilizar 105 enmiendas del conjunto de 630 enmiendas parciales planteadas a los presupuestos de los nueve departamentos forales. Ninguna de las propuestas de modificación ha sido aprobada.

Por la tarde, se ha celebrado la última sesión, sobre los presupuestos de Sostenibilidad y Medio Natural, área que gestiona Elena Unzueta. Se han votado y rechazado las 88 enmiendas parciales.

Los grupos que conforman el equipo de gobierno han respaldado los proyectos presupuestarios de los tres departamentos, rechazando con su mayoría todas las modificaciones propuestas por EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y Grupo Mixto / PP Bizkaia.

Mañana, la sede administrativa de las Juntas Generales de Bizkaia acogerá las últimas tres sesiones de la Comisión de Hacienda y Finanzas para votar las enmiendas a los presupuestos de los Departamentos de Transportes y Movilidad Sostenible, Administración Pública y Relaciones Institucionales y Hacienda y Finanzas. Será el último trámite antes del Pleno donde previsiblemente se aprobarán los Presupuestos Generales de Bizkaia para el año 2020.